

bost foliotan, N sailekoa, 1025037 B zenbakia eta hurrenez hurreneko laurak, nik, notarioak, fede ematen dut.-----

Agerlearen sinadura eta errubrika dago. Sinatua: Juan Ramón Manzano Malaxechevarría, errubrikatua eta zigilatua. -----

----- DOKUMENTU ERANTSIK:-----

PuntuEus Fundazioaren ESTATUTUAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.-----

1. artikulua. Sorrera, izena eta iraupena

"PuntuEus Fundazioa" izenarekin, izaera pribatu eta iraupen mugagabeko fundazio kultural eta soziala sortzen da.-----

2. artikulua. Araubidea, nortasuna eta gaitasun juridikoa.-----

Fundazioak nortasun juridiko propio eta independentea du, eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoak izango ditu; gaitasun horien muga bakarrak izango dira fundatzaileek fundazioaren sortze-egintzan azaldutakoak, estatutu hauetan eta aplikatu dakizkiokeen lege-xedapenetan aipatutakoak, eta, bereziki, Euskal Herriko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legean ezarritakoak.-----

3. artikulua. Fundazioaren helburuak betetzea.--

Fundazioaren Patronatu Zuzentzaileari dagokio fundazio honen helburuak eta hauei dagokien guztia betetzea, aurreko artikuluan aipatutako mugen



barruan.-----

4. artikulua. Lurralde-eremua.-----

Fundazioaren jarduera Euskal Autonomia
Erkidegoan gauzatuko da nagusiki.-----

5. artikulua. Egoitza.-----

"PuntuEus" Fundazioaren egoitza, EHUKo
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza, Julianategi
eraikina, Arriola pasealekua, 2an dago; dena den,
Patronatu Zuzentzaileak berori aldatzeko gaitasuna
izango du. Fundazioa, Patronatuak hala erabakiz
gero, bestelako herrietan ere kokatu ahal izango da,
bere lana garatu ahal izateko etxe eta lan-guneak
sortuz.-----

6. artikulua. Helburuak.-----

Fundazioaren helburu orokorra Interneten euskara
eta euskal kultura sustatzea da. Horretarako,
Fundazioaren helburu zehatzak honakoak dira: ".eus"
edo antzeko Interneteko domeinua eskatzeko
beharrezkoak diren dokumentu eta eskakizun guztiak
betetzea eta, behin onartuta, ICANN erakundearekin
kontratua sinatzea, zeinaren bitartez, irabazi-
asmorik gabeko Puntueus Fundazioa eskatutako
domeinuaren kudeaketa, kontrol eta administrazioaren
arduraduna bilakatuko den.-----

Interneteko domeinu horren ardura izateak
suposatzen du: domeinuen erregistrorako eskariak
jasotzea; domeinua erabiltzeko ezinbestekoak diren
baldintzak betetzen direla ziurtatzea; betetzen

baditu, erregistrorako baimena ematea; eta, azkenik, erregistroa teknikoki mantentzen dela ziurtatzea.---

Fundazioaren lana ezinbestekoa da ".eus" edo antzeko domeinu hori, Interneten euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna bat izan dadin, bere jaiotzatik eta martxan mantentzen den bitartean. Alegia, Fundazioaren egiteko nagusia euskara eta euskal kulturaren sustapena ziurtatzea da, horretarako domeinuaren iraunkortasuna bermatuko duen kudeaketa eta kontrolaren arduradun izango delarik.-----

Era berean, PuntuEus Fundazioa irabazi-asmorik gabekoa denez, kudeaketa eta kontrol horren helburu bakarra domeinuaren iraunkortasuna bermatzea da, horrela soilik bilakatuko baita euskara eta euskal kulturaren sustapenerako tresna. Eta hori horrela, domeinuaren hedapenaren arabera, kudeaketa-planak aldatu egingo dira, Fundazioaren helburua domeinuaren iraunkortasunari hertsiki eta soilik lotuz, inongo irabazi-asmorik gabe.-----

7. artikulua. Xedearen garapena.-----

Fundazioaren xedeari dagozkion jarduerak egoki deritzon eran burutu ahal izango ditu Fundazioak, beste zenbait entitate edo erakundetan parte hartuz ere; horretarako muga bakarrak izango dira legean ezarritakoak eta sortze-gutunean edo estatutu hauetan jasotako aginduek ondoriozta ditzaketanak.--

Horrela, Fundazioak bere helburuen garapena honako era hauetan burutu ahal izango du, legeak ezartzen dituen mugen barruan betiere:-----

a) Fundazioak berak zuzenean, bere organoen bidez, Patronatuak aldizka prestatu eta onartu behar duen jarduera-egitasmoa gauzatzuz.-----

b) Zeharka, beste zenbait entitate, elkarte eta erakundetan parte hartuz.-----

c) Legeak baimentzen dituen gainerako fundazio, elkarte, kooperatiba, sozietate edo beste edozein izaeratako erakundeak sortuz edo sortzen lagunduz.--



d) Fundazioaren helburuak betetzeko baliagarri izan daitezkeen gainerako erakunde edo pertsona juridiko edo fisikoen jardueretan parte hartuz, bereziki Fundazioaren inguruneak direnean.-----

e) Xede hauek lortzeko asmoarekin, Fundazioak laguntza ekonomikoa, aholkularitza eta lankidetzak profesionala eskaini edo eman ahal izango ditu. Era berean, haren helburuak bete ahal izateko, legatu, dohaintza eta diru-laguntzak ematea sustatuko du.---

II. KAPITULUA. KIDEAK

8. artikulua. Fundazioaren sortzailea

Fundazioaren sortzailea PuntuEus Elkarte da.---

9. artikulua. Sortzaile atxikiak.-----

Fundatzaileek sortze-gutunaren izaera eman ahal izango diote eskritura publikoari; horrela, beste zenbait pertsona fisiko nahiz juridikori ere aukera eman dakieke, sortzaile-izaera berarekin, eskriturari atxikitzeko. Izaera hori lortzeko, atxikitzea egin beharko da sortze-eskriturak horretarako zehaztuko duen epearen barruan; epe hori, gehienez ere, bi urtekoa izango da, aipatutako eskritura publikoa egilesten den datatik zenbatuta.-

Epe horretan fundatzaile-izaera lortzeko eskaerak egiten badira, eskari horiek onartzeko nahitaezkoa izango da Patronatuko kideen hiru laurdenak eskaeren aldeko botoa ematea. Patronatuak berak erabakiko du zenbateko ekarri ekonomikoa egin behar duten kidegaiek.-----

III. KAPITULUA. GOBERNU-, ORDEZKARITZA- ETA
ADMINISTRATIO-ORGANOAK.-----

10. artikulua. Patronatua.-----

Fundazioak berari aplika dakizkiokeen indarreko xedapenetan ezarritako mugak baino ez ditu izango. Fundazioaren ordezkapena, gobernua eta administrazioa Patronatuari dagozkio erabat. Patronatuak Fundazioaren jarduera eragingarritasunez burutzeko zuzenbidez dagozkion ahalmen eta botere guztiak erabiliko ditu, eta, besteak beste, estatutu hauek interpretatzekoa.-----

Patronatuko kideak dohainik arituko dira beren karguko lanetan. Nolanahi ere, eginkizun horiek gauzatzean gastuak sortzen badira, gastu horien zenbatekoa berreskuratu ahal izango dute, egoki zurituz gero.-----

Aurrekoa aintzakotzat hartuta, Patronatuak gobernu-organoko kideren bati edo beste inori eman diezaioke Fundazioaren izenean kudeaketak eta bestelako jarduerak burutzeko ardura, eginkizun horietan aritzea diruz sarituz.-----

Eratze-eskrituran izendatutako patronatuko 11 karguetatik 5 karguen iraupena bi urtekoa izango da eta lau urtekoa beste 6 karguen kasuan. Iraupena lau urtekoa izango da ondoren aukeratutako patronatukideen kasuan ; dena den, patronatuko kideak berriro ere hautatuak izan daitezke epe berberako eta modu mugagabe batez. Lehendakari eta diruzain kargua bi urtean behin aldatuko da patronatu kideen artean; hauek ere berriz hautatuak izan daitezke, kideen botoen hiru laurdenarekin.----

Patronatuko kide izatea ezingo da inoiz eskuordetu.-----

Era berean, Patronatuak bere kideetako batengan



edo batzuengan, bai eta kanpoko beste pertsona batengan edo batzuengan ere, fisikoak izan zein juridikoak izan, eskuorde ditzake bere ahalmen eta botere guztiak edo hauetako batzuk, kontu eta aurrekontuen onespina eta Babesletzaren baimena behar duten edo Fundazioaren kudeaketa arrunta gainditzeko duten egintzak izan ezik.-----

Aurreko lerrokadan aipatutako mugak kontuan hartuta, Patronatuak batzorde ordezkari edo betearazle bat edo gehiago era ditzake, kasuan-kasuan ahalmenak zehaztuz. Era berean, ahaldun orokor edo bereziak izendatu ahal izango ditu, eta horiek eginkizun eta erantzukizun mankomunatuak edo solidarioak izango dituzte. Fundazioak irauten duen bitartean, kasuan-kasuan ahalmenak zehaztuko direlarik, honako batzordeak egongo dira gutxienez:-

1) Komite Operatiboa: kideak patronatu-kideak izango dira nahitaez, gutxienez 3 kide eta gehienez 6 kide. Komite operatibo honen egitekoa Fundazioari dinamismoa ematea izango da eta, horretarako, erabakiak hartzeko eta eginbeharrak burutzeko autonomia izango du.-----

2) Aholkularitza Komitea: kideak patronatu-kideak edo kanpokoak izan daitezke. Aholkularitza komite honek ez du erabaki ahalmenik izango. Bere egitekoa ezagutzaren transmisioa eta aholkularitza izango dira.-----

Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira ordezkari eta ahaldun orokorren izendapenak eta ezeztapenak, auzietarako direnean izan ezik.-----

11. artikulua. Patronatuaren eskumenak.-----

Ordezkatu, erabaki eta administratzeko eskumenik zabalenak erabiliz, Patronatuak mota guztietako egintza edo zeregin juridikoak burutu ahal izango ditu, eta legeak ezarritako mugak besterik ez ditu izango.-----

12. artikulua. Patronatuaren osaera.-----

Patronatua osatuko dute, gutxienez, estatutu hauetan araututako eran izendatutako hiru partaide edo patronatu-kideek. Gehienez ere, hamabost partaide edo patronatu-kide izango dira, nahitaez patronatu-kide horiek zuzenbidezko pertsonak izan beharko dutelarik.-----

Hasierako patronatu-kideak sortze-gutunean izendatuko dira 10. artikuluan ezarri diren epeetarako.-----

Aurrerantzean, Patronatu-kideak estatutuen 18. artikuluan araberak izendatuko dira.-----

13. artikulua. Lehendakaria.-----

Patronatuak lehendakaria izendatuko du bere kideen artean, eta haren ardurapekoa izango da Patronatuaren bileretarako deialdia bere ekimenez edo kideen heren batek hala eskatuta egitea, bai eta bertako eztabaidak zuzendu eta erabakiak gauzatzea ere.-----

Patronatuko lehendakariak, organo horretako kide izateagatik dagozkion ahalmenez eta estatutu hauek ematen dizkiotenez gain, Fundazioa ordezkatzekoa ere izango du, dela Patronatu-Batzordearen eta Fundazioaren beste zenbait organoren erabakien ondorio diren ekitaldi eta kontratuetan, dela gerta litezkeen auzi, espediente, jarduera administratibo, gubernatibo, judizial eta judizioz kanpokoetan, auzi-jartzaile nahiz demandatu gisa edo beste edozein izaerarekin; eta prokuradore nahiz abokatuei



eman diezaieke, orobat, auzietarako ahalduntze-
eskumena.-----

14. artikulua. Idazkaria.-----

Patronatuak, bere kideen edo gainerakoen artean, idazkaria izendatuko du. Horren eginkizunak izango dira, besteak beste, Fundazioaren lan administratiboak zuzentzea, dokumentazioa zaintzea eta bileretako aktak jasotzea. Horiek onartu eta lehendakariaren oniritzia jaso ondoren, akta-liburuan jasoko dira. Patronatuak ordainsari egokia ezarri ahal izango du, kargu horri dagozkion eginkizunak betetzeagatik, patronoa ez bada.-----

15. artikulua. Diruzaina.-----

Patronatuak diruzaina izendatu ahal izango du bere kideen artean, Patronatuak definituko dituen eginkizunak betetzeko.-----

16. artikulua. Patronatuaren jarduera-arauak.---

Patronatua urtean bi aldiz gutxienez bilduko da. Urteko lehen hiruhilekoan nahitaez bilduko da aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren eta balantzearen likidazioari eta urte horretako jardueren oroitidazkiari onespina emateko.-----

Lehendakariak egingo ditu bilerarako deialdiak, bilera-data baino hamar egun lehenago gutxienez, eta eguneko gaien zerrenda bertan adieraziz. Larrialdietan, deialdia hiru egun lehenago egitearekin nahikoa izango da.-----

17. artikulua. Eraketa eta erabakiak.-----

Patronatuaren eraketa baliozkoa izan dadin, lehenengo deialdian kideen gehiengoa izan behar da bertan; bigarren deialdian, berriz, gutxienez hiru.-

Aurreko lerrokadetan ezarritakoa gorabehera, Patronatua deitutzat eta baliokotasunez eratutzat joko da horren kide guztiak bertan egon eta bilera egitea eta bilera horren gai-ordena aho batez onesten dutenean.-----

Erabakiak bilerara bertaratutakoen botoen gehiengoarekin hartuko dira, honako kasu hauetan izan ezik:-----

a) Estatutuen aldaketei, Fundazioaren bat-egite edo azkentzeari, patronatu-kideak izendatzeari (bai Patronatua zabaltzeko, bai kideak ordezkatzeko edo dauden hutsuneak betetzeko) eta sortzaile-izaerako eskaeren onespenei buruzko erabakietan. Kasu horietan, erabakiaren aldeko botoa eman behar du, gutxienez, Patronatuko kideen hiru laurdenak.-----

b) Bestelako erabakietan, baldin eta horien inguruan baiezko botoen gehiengoa edo quoruma bestelakoa izan behar bada, estatutuetan jasotakoaren arabera.-----

Lehendakariaren botoak argituko ditu berdinketa-kasuak.-----

Patronatu-kide bakoitzak, bilera bakoitzeko, beste patronatu-kide bati botoa eskuordetetzeko aukera izango du, beti ere idatziz jasotzen bada.---

18. artikulua. Patronatu-kide berriak izendatu eta hutsuneak betetzea.-----

Patronatua zabaldu edo horren kideak ordezkatu behar direnean, Patronatuak hartu beharko du patronatu-kide berriak izendatzeko erabakia, eta erabaki horren aldeko botoa eman behar du,



gutxienez, kideen hiru laurdenak.-----

Heriotza, ezgaitasun, desgaikuntza, agintaldia bukatze, kargua uzte, kargutik kentze edo Patronatuaren kide izateari uzteko beste edozein arrazoi dela medio, hutsuneak gertatzen badira, hutsune horiek betetzeko erabakia ere organo berberari dagokio, eta erabaki horren aldeko botoa eman behar du, gutxienez, kideen hiru laurdenak.----

IV. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA ETA
ONURADUNAK.-----

19. artikulua. Xedea eta onuradunak.-----

Fundazioaren xedea interes orokorrekoa da, eta orotariko pertsona fisiko nahiz juridikoak izan daitezke Fundazioaren onuradun, inolako bereizkeriarik gabe, beti ere interneten aktibitatearen bat burutzen badu eta aktibitate horren fundazioaren xedeei erantzuten badie.-----

Fundazioak, bere onuradunei emandako zerbitzuen truk, zenbateko bat ordaintzea galdatzen dienean, zenbateko horren ordainketa edo abonua egitearren bakarrik zehaztuko ditu Fundazioak onuradunak. Era berean, Fundazioak eskainitako zerbitzuen izaera dela eta, onuradunen kopurua mugatu beharra dagoenean, Fundazioaren Patronatuak hautatu eta zehaztuko ditu horiek, eta ez da atzera egiterik izango erabaki horretan. Horretarako, hautagai bakoitzaren meritua, premia, gaitasun ekonomiko eta aprobetxamendurako aukera desberdinak nahiz bestelako ezaugarri objektiboak balioetsiko dira hautaketa egiteko unean. Nolanahi ere, inork ere

ezin izango du Fundazioan edo beraren organoetan alegatu onura horiek dagoeneko izatea, ez banaka ez taldean, horiek ematen diren bitartean, ezta onurok pertsona jakin batzuei emateko agindu ere.-----

V. KAPITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

20. artikulua.-----

Fundazioaren ondarea.-----

1. Fundazioaren haserako ondarea HOGEITAMAR MILA (30.000 €) eurok osatzen dute, hain zuzen, sortzaileak egiten duen ekarpena. Sortze-eskrituran jasotzen da hasierako zuzkidura.-----

Fundazioaren ondarea indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen era guztietako ondasun eta eskubideez izango da.-----

2. Haserako ondareaz gain, ondorengoek osatzen dute Fundazioaren ondarea:-----

a) Kide sortzaileak bere borondatez egin nahi dituen ekarpenak.-----

b) Etorkizunean Fundazioak entitate publiko edo pribatutatik edo partikularrengandik eskura ditzakeen kostu bidezko edo borondatezko beste edozein ondasun edo eskubidek, bereziki subentzio, dohaintza edo legatuek.-----

c) Fundazioak egindako jarduerak eta ondarearen fruitu edo errentek, produktu edo irabaziek eta eman ditzakeen zerbitzuengatiko ordainketek, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera. Fundazioaren ondarea osatuko dute era guztietako ondasun eta eskubideek, indarrean dagoen legeriak horiek baimentzen dituen heinean.-----

21. artikulua. Ondarea zaintzea.-----



Fundazioaren ondarea zaintzeko ondorengoak izan beharko dira kontuan:-----

1. Sortze-ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira, eta bere inbentarioan jasoko dira. Gainera, eta hala dagokienean, bakoitzari dagokion Erregistroan inskribatuko dira.-----

2. Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira Fundazioaren izenean. Inskribagarriak diren gainerako ondasunak, dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.-----

3. Balioak Patronatuak izendatutako finantza erakundeetan gordailatuko dira. Gainerako ondasun higigarri, jabetza-titulu, gordailu-egiaztagiri eta jabari, edukitza, usaera, gozamen edo Fundazioaren beste edonolako eskubide frogatzen duen edozein dokumenturen zaintza Patronatuaren edo honek eskuordetutako pertsonaren ardura da.-----

4. Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak Patronatuaren idazkariaren ardurapeko erregistro-liburuan jasoko dira.-----

5. 12/1994 Legearen, ekainaren 17koaren, 22. Artikuluak biltzen dituen egintza guztiak Fundazio Erregistroan jasoko dira; hala dagokienean, bakoitzari dagokion Erregistroan egindako inskripzioa ere egin ahal izango da.-----

22. artikulua. Fundazioaren ondarearen inguruko arauak.-----

1. Fundazioak jaso ditzakeen dohaintza, legatu eta herentziak, emailearen zehaztapenen arabera, Fundazioaren ondarea gehitzeko edo zuzenean bere helburuak betetzeko erabiliko dira. Emaileak zehaztapenik ez badu ematen, Patronatuak, bere irizpideen arabera, erabakiko du.-----

2. Ondasun eta errentei dagokienean, hauek Fundazioaren helburuak lortzeko erabiliko dira modu zuzenean, eta Patronatuak erabakiko du, dituen helburu diferenteen artean haien aukeraketa eta banaketa.-----

3. Fundazioak, une oroko egoera ekonomikoaren arabera, bere ondarea osatzen duten inbertsiotan, hauek bere horretan mantentzeko edo bere balio erreala ez galtzeko, beharrezko aldaketa edo moldaketak egin ditzake.-----

23. artikulua. Araubide ekonomikoa

Patronatuak urtero-urtero burutuko ditu, alde batetik, Fundazioaren ondare-egoera, egoera ekonomikoa eta finantza-egoera jasoko dituzten inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitza-kontua; eta, beste aldetik, fundazioaren helburua betetzen ari dela azaldu eta frogatzen duen eta ekitaldi ekonomikoari dagokion oroitidazkia. Oroitidazkiak finantza-taulak, eta ondarean eta gobernu- edo zuzendaritza-organoetan izandako aldaketa guztiak jasoko ditu.-----

Horrez gain, Patronatuak hurrengo ekitaldirako gastu eta sarreraren aurrekontua prestatuko du urtero-urtero, oroitidazkiarekin batera, Babesletzari hori aurkezteko indarrean dagoen legeriaren arabera.-----

Gastu eta sarrera arruntak jasotzen dituen aurrekontuan agertuko dira Fundazioak edozein kontzepturengatik eskuratzen dituen sarrerak, eta sarreraren soberakinak Fundazioaren ondarea handitzeko



erabili ahal izango dira.-----

Ekitaldian zehar, Patronatuaren Batzak aldaketak egin ahal izango ditu aurrekontuan, horiek beharrezkoak badira aurrekontua kasuan-kasuan sortzen diren beharrianetara egokitzeko.-----

Patronatuak aurrekontu bereziak prestatuko ditu jarduera bereziak burutzeko beharrezkoak direnean. Aurrekontu guztiek, arruntek zein bereziek, orekatuak izan beharko dute.-----

Fundazioaren sarrerak ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 30. artikuluan xedatutako aginduen arabera erabiliko dira.-----

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen hiruhilekoan, Patronatuak aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren likidazioa eta balantzea egingo ditu, eta ekitaldi horretako jardueren eta kudeaketa ekonomikoaren oroitidazkia ere bai; oroitidazki horrek behar besteko informazio bilduko du Fundazioaren helburua gauzatzeari eta Fundazioaren ondarearen egoerari buruzko ikuspegia lortzeko.-----

VI. KAPITULUA. ALDAKETA, BAT-EGITEA ETA AZKENTZEA

24. artikulua. Estatutuak aldatzea.-----

Patronatuak estatutu hauek alda ditzake sorrerako xedea hobeto betetzeko komenigarria den guztietan. Aldatzeko erabakiaren alde, gutxienez, kideen hiru laurdenek eman behar dute botoa.-----

25. artikulua. Bat-egitea, elkarketa edo federazioa.-----

Patronatuak erabaki dezake, halaber, Fundazioa antzeko xedeak dituzten beste erakunde batekin edo batzuekin batzea edo federatzea, baldin eta horrekin sorrerako xedea behar bezala zainduta gelditzen bada. Erabakia hartzeko, beharrezkoa izango da kideen hiru laurdenek horren aldeko botoa ematea.---

Bat-egitearen kasuan, erabakia arrazoitua izango da, eta Babesletzaren onspena izan beharko du indarrean dagoen legeriaren arabera.-----

26. artikulua. Azkentzea.-----

Fundazioaren azkentzea gerta daiteke honako arrazoi hauek tartean izanik:-----

- a) Ondarearen likidazioa.-----
- b) Legezko xedapen baten ondorioz eta ebazpen judizial irmoaren ondorioz Fundazioa desegiten denean.-----
- c) Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera bat-egite prozesua erabakitzen denean.-----
- d) Fundazioaren baliabideen eskasia edo beste edozein arrazoi dela medio, sortze-gutunean eta estatutu hauetan jasotzen diren aginduen arabera, Fundazioaren helburua betetzea ezinezko gertatzen denean, salbu eta Patronatuko kideen hiru laurdenek estatutuak aldatzea edo beste fundazio batekin bat egin edo elkartzeari erabakitzen dutenean.-----

27. artikulua. Prozedura.-----

Fundazioa azkentzeko espedientea irekiko da, eta, bertan, honako hauek jasoko dira:-----

- a) Horretarako zioaren azalpen arrazoitua.-----
- b) Fundazioaren balantzea.-----
- c) Likidatzaileak izendatzeko proposamena, eta jardunbiderako eta Fundazioaren ondarearen edo



Iratxe Esnaola Arribillaga andrea,
errubrikatua.-----